

## **GAU ILUNA AMAITU DA**

Aitziber Lizardi Mutuberria, 16 urte

*Arantza*

Gerra amaiturik. Isiltasuna. Ez osoa, hurbileko basoetako zuhaitzen dardaren soinua ederki aditzen baita. Orain arte, gizon-emakumeek beraien gorputzetan jasan behar izan duten dardara zuhaitzetara pasatu dela ematen du. Gerrak zirauen bitartean, hauek ez baitziren zuhaitzen dardaran erreparatzeko gai, inoiz isildu ez diren arren. Eguzkia jada, aspaldi gordea da, eta zeruko ilargiak ederki argitzen ditu inguruak, betea baita. Gerra garaian hain mesfidati zitzaien gaua, orain, lehen-dabiziko aldiz lasaitasun moduan har zitekeen. Lasaitasun hau, ordea, ez da betikoa, gerraren joanak beti marka uzten baitu. Nahi izanda ere, nekez ezaba daitekeen marka. Marka honek fidagaitz izatera bultzatzen du bat, soinurik txikienean izutze-ra... Gerrak utzitako zauriak, irekirik baitaude, bizienean. Hala ere, gerra baino hobea edozer. Urrunean, errekaaren soinua, orain dela gutti, gorritz tindaturik joan den erreka, aberriaren alde beraien bizia eman dutenen odolaz, ohorezko gudarien odolaz, orain pausaturik doa. Inguruko

mendiak, berriz, ezer gertatu ez balitz bezala dau dela ematen du, lehen bezain eder eta harro. Hala ere, errealitatea ez da hori, ez baitaude lehen bezala, gerraren zapalkuntzak jaso eta “galdu” dutenak, makiak adibidez, mendietatik baitabiltza, ihes egin nahian, ezagutzen baitituzte harrapatuak izanez gero pairatu beharrekoak. Asko eta asko erbestera joan nahian dabilta hemengo mendietatik, hauek mugako mendiak baitira. Maki hauek beren herriarengatik borroka egiteagatik jasoko dituzten zigor izugarrien aurka, inor ez da altxatuko. Nahiz eta jakin bidegabekeria hutsa dela, hezurretaraino sartua zaien izuak ez die, inola ere, horren aurka egitera uzten. Irabazleek botere osoa dute jakina, botere inposatzailea. Honegatixe, gerra amaitu eta ondorengo urte luzeetan jendeak tentuz ibili beharko du egiten duenarekin. Debekuak, atxilotak, zigorrak... Horixe da irabazleek herri osoarengan duten eskubidea, beraien ustezko herrian noski, paperetan beraien herri bezala definitzen den herrian. Hau ez baita dena bat. Ez dut gehiago erranen.

Ez dut aipatu, nik uste ez dela beharrezkoa; baina, hala ere, hobe erraten badut. Urteaz ari nartzazue, hau 1939.urtea da. Gau argi honetan (gogoratu ilargi bete-betea dugula ikusgai) ez dago inor kanpoan. Isiltasun sakona, zakur zaunka zorrotz batzuekin ebakia izan da. Goiko baserriko zakurra da. Segituan leihoak zabaldu eta gizon baten burua ikus daiteke. Martin da, zakurraren zaunkak izututa atera dena. Alde guztietara begira-

tu eta inor ez dagoela ikusita pozak aurpegia margotu diola garbi ikus daiteke. Zakurrari isilik ego-teko oihu ahul bat bota eta berriro barrura sartu da. Dirudienez, zakurrak *Xarbo* du izena. Sukaldean familia osorik bildurik dago, sutondoa-ren inguruan. Ertz batean, sutondotik hurbilen amatxi zahar bat ikus daiteke, beltzez jantzia, balantza aulki batean, bere laborea egiten. Aurpegian tristura samina nabari zaio, haatik emakume gogorra dela antzematen zaio. Lurrean kanka batekin jostetan, lau haur daude, sukaltokian emakume bat, Martixu, Martinen emaztea, afalondoko ohiko lanak burutzen, eta azkenik, mahaiaren inguruan hiru gizon: Martin eta bere bi anaiak, Fidel eta Benito. Samintasuna ez da amatxi Juanaren aurpegian bakarrik ikusten ahal eta ez da harritzekoa, Juanak seme bat galdu baitu gerran, edo gauza bera dena Martinek, Fidelek eta Benitok anaia. Hori da tristura horren arrazoia. Gerrak ehortzitako anaiaren falta izugarria da, inork beteko ez duen hutsunea utzi baitu etxean. Gerrara bidean honelaxe erraten zuen Joakinek, anaia zenak: “lasai, ni harro noa, nere aberriaren alde borrokatzera noa, eta itzultzen ez banaiz, pentsa ezazue Joakinek bizia gehien maite zuena egiten eman zuela, aberria defendatzen”. Hori pentsatuz kontsolatzen dira nolabait etxeoak, batez ere Martin, baina ez da aski. Hala ere, aurrera jarraitu beharra dago, ezin da iraganera loturik bizi.

Halaxe daudela, ate kolpe bortitzak entzun dira. Izua. Ireki, ez ireki. Azkenean, Martinek sarrera

nagusiaren goiko leihotik begiratu eta antz txarrik hartu ez dion gizon bat ikusi duenez, atea zabaltzea erabaki du. Laguntza! Gizona, laguntza eske dator. Lehen aipatu dizkizuedan iheslari horietako bat da, maki bat. Egunak daramatza mendian noraezean, galdurik, bertze alderako bidea aurkitu ezinik. Gosea. Hotza. Nekea. Denak batera, itxura errukarria dauka. Ea teilatu ematen ahal dioten galdetzen du eta mesedez bidea erakusteko eskatu. Familia, hobeto erranda, gizonak eztabaidan hasten dira lagundu, ez lagundu. Arriskua izugarria baita, bertzeek harrapatuz gero akabo dena. Hala ere, ezin laguntza ukatu. Alde batetik, Joakinengan pentsatu eta ezinezkoa laguntza ukatzea (bera bizirik balego, egoera berdintsuetan egongo litzateke) eta bertzetik, nola utziko zuten gizona horrelako baldintzetan joatea, irtenbiderik gabe frankisten atzaparretan erortzeko. Hitz hau aipatzen dudan lehen aldia, beraiek ez baitute aipatu ere egiten, nolabaiteko hitz debekatutzat daukate.

Azkenean, teilatu ematea erabakitzen dute (zer gutxiago!) eta honela, Patxi, aste bat osoz Goiko baserrian bizituko da, berriro indarberritu eta bideari ekiteko behar beste kemen bereganatu arte. Pasa du bada horrela aste bat, isilik, etxetik atera ere egin gabe eta etxeoak, berriz, ahalik eta normalen inork ezer nabari ez dezan. Zeinen zintzoa, burutsua eta printzipioduna Patxi! Etxekoek maite dute, batez ere, haurrek eta Juanak, azken honek galdutako semea bezala hartu baitu. Nola diren gauzak, gerrak kendu dion semea gerrak

itzuli dio. Baina ezin betiko gelditu, egunen batean jabetuko baitziren, eta halaxe berriro bideari ekiteko eguna iritsi zaio gure Patxiri.

Biharamunean berriro bideari ekitekoa da Patxi, eta Martinek bidea erakutsi behar dio. Gauean, Patxi eta Martin baseritik irten eta mendira doaz, Patxik bidea ikastea helburu dutela. Martinek ederki daki mendi horietako berri, bertan hazia baita, beraz, ez du inongo zailtasunik bidea erakusteko; eta Patxi, berriz, mutil azkarra izaki, ezta honek ere bidea ikasteko. Honela bada, itzuli dira baserrira eta sartu dira ohean. Biak ere ez dira azkar lokartu, bat tristurarengatik (Patxi badoalako) eta bertzea urduritasunarengatik, Patxi jakina.

Lokartu dira azkenean. Ez, ordea, denbora luze-rako; goizeko ordu txikitan, ate soinu bortitzak entzun bat-batean familia guztia ernatu baita. Susmagarria. Oraingoan ez da tristura aurpegien bereizgarri, izua baizik. Gero eta ate soinu bortitzagoak. Martini ez dio denborarik eman goiko leihotik begiratzeko, aurrekoan bezala, hala egitekotan, etxeko atea lurrean ikusi beharko bailukeen. Poliki-poliki, atea zabaldu du Martinek. Uste zuena, makien atzetik zebiltzan *Guardia Zibil* bikote bat da. Barrutik ikarak janda dagoen arren, itxurak egin eta bisitaren zergatia galdetu die Martinek. Haietako batek etxean daukaten makia-  
ren berri badutela eta haren bila datozela erran du eta etxea miatu behar dutela. Aurpegiak zuritzen hasi dira, batez ere Maritxurena. Haurrak bere gonapean daude. Etxe guztia miatu dute, leku bat

bakarririk falta dute, Patxik lo egiten duen logela. Hara doaz. Etxekoak beraien atzean, elkarri begiratu diote, irteerarik gabeko zulo beltz batean egongo bailiran. Atea zabaldu, eta Martinek begiak ixtea, biak bat. Etxekoentzat harridura (disimulatua), baita bi izen gabe horientzat ere. Patxi mutil azkarra baita. Atea sumatu eta zein diren jakinda, leihotik ihes egiteko beta izan du, nahiz eta altuera txikia ez izan. Edozer, urde horien eskuetan erortzen uztea baino.

Bi *gizonak* joaterakoan, isiltasuna nagusitu da etxean, denbora luzerik iraun ez duena, ordea. Martinek garbi dauka zer gertatu den, “*txibatazo*”ren bat. Seguruenik aurreko gauean norbait ikusi eta dena bertzeei kontatu zien, izorratzeko asmoz, bere helburua lortu ez duen arren.

A zer poza familiarena! Jadanik argitu du eta Patxi joan da bai, baina onik joan da, ez da harrapatua izan. Bere bideari ekin dio eta denak seguru daude onik ailegatuko dela bertze aldera, gizon azkarra baita Patxi! Dagoen tokian dagoela, Joakin ere harro egonen da bere familiak egin duenaz, bai horixe!

Hala ere, Patxirentzat abentura, hobeto erranda amesgaiztoa ez da amaitu. Ez du segundo bakar batean ere zalantzan jarri leihotik jauzi egitearena. Jauzia txikia ez izan arren, Patxi minik ez hartzeko moduan moldatu da. Bere oin zauliak lurra ukitu dutenerako, korrika bizian irten da gaztea, tximistak atzetik ipurdia ukituko balio bezala. Ez du denbora handirik behar izan, gauaren iluntasunean basoan gorde den arte. Patxi begien bistatik galdu

orduko, hots bat entzun da, baserriko atea izan dela dirudi. Bai, halaxe izan da, bikote berdea atera egin baita, eta beraien bideari ekin diote. Harrotasunezko ibilkeran aldendu egin dira, aldentzeko hobeak dira bai horiek!

Pauso hotsak entzuten dira, gero eta indartsuagoak eta bizkorragoak hurbiltzen ari diren heinean. Norbait dator, arnasestuka. Momentuz, zuhaitzen artetik itzal bat soilik ikus daiteke, giza itxura duen itzal bat. Ematen duen pausu bakoitzean, ongi miatzen ditu bazterrak, zerbaiten beldurra edukiko balu bezala. Hau, inondik ere, iheslari bat izango da, muga isilean pasatu nahi duenen bat, makiren bat seguruenik. Gizon abil eta zauliaren itxurak ditu, sendoa, bizkar zabalekoa. Ingurura ongi begiratu eta une batez lurrean eseri da, gainean zamaturik zeukan neke guztia kanporatzeko, antza. Alboko erreka hotsa baino ozenago entzuten da mutilaren arnasa, pixkanaka baretzen doan arren. Errekara hurbildu eta ur tragoa hartu du, eta aurpegia bustitzeko ere aprobetxatu du erreka ur, orain, gardena. Denbora luzeegirik itxaron gabe, berriro basoko bidezidorretan barrena abiatu da. Heldu denean baino mantsoago, hori bai. Seguruenik, mugara heltzen ari dela ohartu izanen da, eta ematen duen pausu bakoitza inoiz baino gehiago pentsatuko du, hemen zuhurtziaz ibili beharra baitago. Mugazainak ez dira urrun ibiliko, eta horien belarriak zakurrenak baino erneago egongo direnez, ezin da hutsik egin. Garbi dago, mutilak hori dena ederki dakiela.

Halako batean, gaztea zuhaitz baten atzean esku-tatu egin da eta itxura denez, arnasa hartzea ere saihesten ari da, inongo zaratarik ez ateratzeko. Egin duenaren arrazoia jakiteko ez da azalpen handirik eman beharrik: inguruan mugazain bat dabil. Iheslariaren aurpegian kontrajarritako bi senti-mendu nabarmentzen dira, poza eta beldurra. Mugatik hurbil dagoela jakitearen poza eta harra-patua izatearen beldurra.

Eskerrak oraindik ez duela egunak argitu! Hala izan balitz, dagoeneko mutil gaztea besteen atza-parretan egonen litzateke. Horrek zer eragin duen galdetuko duzue. Oso erraza, izan ere, mugazainak ia sudur punta ukitu dio gure mutilari eta ez du antzeman hor inor zegoenik. Segurtatua legoke bai holakoekin lurralde bat! Eskerrak horiek ez diren gure zaindariak, etsaiak baizik!

Zoritzarrez, makiak zortea ez du bere alde. Bera ezkutaturik dagoen zuhaitzetik, hontza bat atera baita zabar-zabarrean hegaka. Ez al dute erraten ba hontzak zorte ona dakarrela? Kasu honetan behintzat ez. Hontza izan baita salatu duena. Mugazainak segituan bere gorputza biratu eta begien aurrean ikusi du anitz pentsatu gabe makia dela antzeman dion mutila. Honek lasterrari eman dio, inoiz baino bizkorrago. Mugazaina ez da atzean gelditu eta gibeletik joan zaio. Nola ez, muga-zaina bere eskopetarekin mehatxuka hasi da eta denbora luzeegirik gabe tiroka. Iheslaria ez da kikildu ordea tiroekin eta sastraka eta ezpondetan barrena doa, Martinek egun hartan irakatsitako



bide guztiak bazter batera utziz. Katu baten atzetik doan txakurra bezala, harraparia ere ez da atzean gelditzen. Harrapakina, berriz, gainean daukan estualdiarekin ez da nekeaz ohartu ere egiten eta pausua non ematen duen ez dakiela, begiak aurre-rantz tinkaturik doa. Horregatik, beranduegi izan den arte, ez da ohartu aurrean aurkeztu zaion amildegiaz. Beraz, ez du bertatik erortzea beste aukerarik izan.

Mugazaina amildegira iritsi denean, harriturik bazter guztietara begira gelditu da. Ezin du sinestu nola ihes egin duen gazteak, ez baitzaio burutik pasa ere egin amildegitik erori dela. Hala ere, ziurtatzeko edo, amildegirantz begiratu eta gero bortz bat segundoz pentsakor egon ondoren eskubirantz jarraitu du.

Beheitan, ahal duen bezala ezkutatu da iheslaria, goitik begiratuta inork ez ikusteko moduan behintzat bai. Hanka bat hautsi du erortzerakoan, ezer gutxi halako saltoa egin ondoren. Nahiago du bai hanka hori hautsi eta ihes egitea lortu, alderantziz baino. Soinean daraman atorra zaharra kendu eta nola edo ahala hankan lotu du, berriro bideari ekin baino lehen. Hanka hautsi izateak ez dirudi mutilari oztopo handirik jarriko dionik bere helmugara iristeko ekinetan. Gainera orain bestelako lasaitasunez ibiliko da, baina ez nahi bertzeko lastertasunez. Orduak joan ahala gero eta zorrotzagoa da hankan sentitzen duen mina.

Aurkitu duen lehenengo baserrian, ez nahi bezain agudo, atea jo du. Atea jo duenean, ez du

pentsatu ez, barrutik aterako zitzaionaren ahotsa hain xaloa egingo zitzaionik. Ahotsa ez dakit, baina entzun nahi zuena entzun duenean, mintzatu denaren ahoskera ordurarte entzun zuenetatik ederrena iruditu baitzaio. Ez dakit ahotsa egin ote zaion liluragarria edo ahots hark erran diona:

– *Nor zira?*

Etxandreak ez du inongo oztoporik jarri Patxik laguntza eskatu dionean. Azkenik, gure Patxi salbu dago, muga iragan eta aske baita. Ez da berak nahi lukeen askatasuna, ordea. Berak amesten duena, egunen batean bere aberria aske izatea da eta jakina, aberriarekin batera bera ere bertan aske izatea baita. Iritsiko al da egun hori?